

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko azaroak 26 / III. urtea / 103. zenbakia

Zubian barna

Teilatu baten azpian

Etxebizitza berrien prezioa % 42 igo da Nafarroan azken urteotan, inguruko herrialdeekin alderatuta igoerarik handiena, hain zuzen. Eta, hala ere, gero eta etxebizitza gehiago egiten dira gure lurraldean. Iruñerria etengabeko hazkunderan murgilduta, bertan kokatzen dira ahalegin nagusiak, eta lur-sailek eta babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintzek polemika sortu dute azken urteotan alderdi politikoen artean. Gai konplexua izanda ere, bi joera nagusi antzematen dira azken bolada honetan: babes ofizialeko etxeen kopuruak beherakada handia izan du azken bost urteotan, eta Nafarroako populazioa gero eta gehiago kokatzen ari da Iruñerrian. Ondorioz: etxebizitza hutsak eta herriak hustuta.



BINGEN AMADOZ

Guztia egiteko zeukan herri batetan bazegoen behin oso harri ona ematen zuen harrobia. Materila ateratzen hasi ziren bertatik batzuk eta besteek. Harriak landu eta etxe txuri eder bat eraikitzeko agindua eman zuen Jainkoaren izenean, diruzale porrokatua zen gizon batek. Bere probetxurako erabili zuen aurrerantzean gizon horrek menpeko langileen produktzioa, hauen eskubideak erabat zapalduz. Borondate oneko jendeak txalotu egin zuen luzaro etxe txuriko nagusiaren agintea. Asko ziren Jainkoaren beldur eta alde berean Jainkoaren izenean mintzatzen zen nagusi horren hitzak ezertan ere zalan-tzan jartzen etzituztenak.

Etxe txuriaren ondoan, langileen arteko kooperatiba modukoa sortu eta harrobi beraren harriak erabiliz dotore asko eraiki zuten beranduago hauzolan gisan etxe berri bat. Gorritz pintatu zituzten ate eta lehioak eta etxe gorria izan zen hura. Etxe gorriaren barnean gustora aritu ziren lanean hasiera batetan, ez baitzen bertan etxe txurikoarena bezalako agintekeri latzik ezagutzen. Denbora pasatu ahala etxe txuriko langileek gorrikoen eskubide berdinak exijitu zituzten lan gutxiago ez-paiztuten egiten. Nagusiak lehioak ixteko agindua eman zuen bertatik inungo aire berritzailek sar etzedin, eta iadanaik gehiegi kutsaturik omen zeudenak kalean jarri zituen. Hala ere zirrikitu guztietatik aire freskoak sartzen segitu zuen aurrerantzean ere. Etxe gorrian ere etzen giroa hasiera batekoa eta hantxe nagusi egin zirenek herriaren izenean bere eskubidei uko ematea eskatu zieten menpekoei eta badaezpada lahoak ixteko agindua eman zuten, bertatik aire kaltegarria sartuko ez ote zen beldur baitzeuden. Barneko giroa usteltzeko lagungarri izan zen neurri hura ordea. Etxe txuri nahiz gorrian burmiak herdoiltzen joan ziren. Haize eta eguzkiaren faltan guttiz inguru ilun eta itogarrian mugitu ziren denbora batez bi etxeetako langileak eta eskubideak bere bereak zituztenak exijitzeaz gain haize garbieren askatasuna ere ametsa bihurtu zen beraientzat. Ilunpetako giro hartara bildu ziren laister arratoiak eta etxeak hondatzen agintarien lagungarri egin ziren.

Arestian bete dute lana marraskariek azpitik eta mandatariek goitik. Etxe txuria egoera txarrean dago eta gorrian ez daude gauzak askoz hobe. Barnean nunbait jende gehiegi eta diru gutxi dago eta betidanik aire freskoa gustoko izan dutenak kalean jarri dituzte. 5 atera dira etxe txuritik eta beste hainbeste udatik honuntza gorritik. Azaroko haizea hotza izanik ere arnasa sakonki hartu eta herrikideon ulemen eta laguntza osoa jaso dute, gizakia ezpaita jaio ilunpean eta itsukerian bizitzeko, ia guztia egiteke daukan herri honen askatasun goxoaz gozatzeko baizik.

SK

Gure aukerak

MINTZALDIAK

'Euskara eta AEK Erroibar, Auritz eta Aezkoan' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko dute gaur, azaroak 26, Jose Eseberri eta Iñaki Caminok Aurizberiko liburutegian. Etxabarregoa Elkartek antolatua, heldu den ostegunean beste mintzaldi bat izanen da, Auritzen, 'Bertsolaritza' gaiari buruz. Honetan, Lontxo Aburuza izanen da hizlari. Biak arratsaldeko 20.30etan hasiko dira.

ANTZERKIA

'En tren' izeneko antzezlanaren plazaratuko du igande honetan, azaroak 28, Kollins Clown taldeak, Zudaire herrian. Antzerki emanaldia herriko pilotalekuan izanen da, arratsaldeko 17.00etan hasita.

'Porca miseria' antzezlanaren taularatuko du Luciano Federico taldeak igande honetan, azaroak 28, Nafarroako Antzerki Eskolan, San Agustin kalean. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da eta sarrerak 600 pezetatik salduko dituzte. Gazte txartela edukiz gero, 300 pezetatik izango dira.

'Historia de una muñeca abandonada' antzezlanaren taularatuko du Iruña Pequeño Teatro taldeak Urrotzen. Emanaldia igande honetan izango da, azaroak 28, herriko pilotalekuan. Arratsaldeko 17.00etan hasiko da.

BERTSO SAIOAK

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariak ariko dira gaur ostirala, azaroak 26, Burlatako 'Axular' Elkartearen. Bertso afaria moduan antolatua, gaueko hamarrak aldera hasiko da.

Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Manolo Arozena bertsolarien saioa izango da bihar larunbata, azaroak 27, Etxalarko 'Le Vasc' tabernan. Bertso afaria da eta 21.00etan hasiko da.

MUSIKA

'Sorotan Bele' musika taldeak kontzertu bat eskainiko du datorren ostegunean, abenduak 2, Iruñeko Aita Salestarren Ikastetxe-ko aretoan. Kontzertua arratsaldeko 20.00etan hasiko da.


'Koiuntura' folk musika taldearen kontzertua izango da bihar, azaroak 27, Zudairean. Musika emanaldia herriko pilotalekuan antolatua dute eta gaueko 21.00etan hasiko da.

Linza-Hiru Erregeen Mahaia

Euskal Herriko tontorra bisitatuko dugu asteburu honetan. Nafar Mendizale Federazioak egin behar duen ateraldiaren bitartez. Belagua eta Larrako inguru hauek ditugu euskal parajerik ederren eta bitxiak, dudrik gabe, natura basatieta eta garbiena, eta txokoa ederki ezaguna bada ere, ongi da beti zertxobait ere gogoratzea, ahaztu ez dezagun.

Hiru Erregeen Mahaiara igotzeko hiru dira bide erabilienak: Belagatik, Linzatik eta Leskundik. Belagatik ateratzen den ibilbidea Nafarroako dermioa zeharkatzen du bere osotasunean, eta Angel Oloron aterbetik bertatik ateratzen da. Ederra da, Atzaparretako erre-serba integralen zehar baitabil, baina ez da batere garbia eta oso luzea, gainera. Horrek nekoso eta batzutan astun bihurtzen du, baina hankak sasoi onean eta biderik gabe ibiltzeko ohitura baldin baduzu, hori duzu aukera.

Beste ibilbidea Leskundik (Biarno) ateratzen da, eta malda izugarria gainditu ondoren, Petretxema eta Mahaiaren arteko lepora heldu daiteke. Honetan eskalada apur bat ere egin behar da, eta ongi prestatuta



daudenendako bakarrik utziko genuke. Ansabereko orratzak bat baino gehiago beldurtzeko modukoak dira.

Hirugarrena ohizkoa eta errezena da, eta hortik abiatuko gara asteburu honetan. Linza aterbetik —Belagatik Ansora doan errepidetik heltzen da bertara— atera, eta Txamantxoia eta Ezkaurre ikusmiran dugularik, Linzako lepora heltzen da ordubeteren buruan. Hortik ikusiko dugu dagoeneko

Petretxema eta Hiru Erregeen Mahaia. Ezkerreko bidea hartu behar dugu orduan, zertxobait jeitsi, eta hortik, markatutako bidetik, Mahaiaren azken maldak egiteko. Goian zain daukagu San Frantziskoren irudia eta Xabierreko gaztelua, aspaldian paratutakoak. Ikusmira ederra da eguraldi ona baldin badago: Auñamendi, Bisaurin, baita Midi D'Ossau ere... Euskal Herriko tontorrak merezi baitu, bai horixe.

ASTEKO PERTSONAIAK



Felipe Rius
Kazetaria

Iruñeko udalak antolatutako Egile Berrientzako VIII. Literatur Lehiaketaren emaitzak jakin dira aste honetan. Felipe Rius 'Egin' egunkariako kazetariak eskuratu du lehen saria narrazio laburrean, 'Bi argazkitan' obrarekin. Berarekin batera, Josetxo Azkonak poesia mailan lortu du lehen saria, 'Argi goraldia zabuka' lanarekin, eta bertso paperetan 'Xerka' izeneko lanari eman diote saria, Jose Manuel Leizak egina. Epaimahaikideek lehiaketara aurkeztutako idazkien «kalitate handia» nabarmendu dute, honek eztabaida luzatu eta aberastu duela esanez. Beste sarituak Enrike Diez de Ultzurrun, Francisco Javier Mangado, Jantxo Urdiruz, Joxemiel Bidadoz, Manu Gomez eta Imanol Arzalluz izan dira, bigarren eta hirugarren sariak jaso dituztenak.



Luis Eduardo Aute
Artista

Iruñean izan da aste honetan Luis Eduardo Aute abeslari famatua, baina oraingo honetan ez da etorri kontzertu bat edo musikari buruzko zerbait aurkeztera, bere azken margoak erakustera baizik. Abeslariaren gain, idazlea, margolaria, konpositorea eta pelikulen zuzendaria ere bada Aute jauna. Ez da hau Iruñean aurkezten duen lehen erakusketa, 1975ean Gotorlekuan lehendabizikoa burutu baitzuen. Azkeneko hau Maisonnave hotelean dago ikusgai, eta bertan, boligrafoz egindako margoak dira gehienak, oleo handiak ere egon arren. Bere gai nagusiak sexoa, emakumea eta sentsualitatea dira. «Sexua da gauza guztiaren ama» azaldu zuen aurkezpenean Autek. «Gehien erakartzen nauen gaia da eta milaka aldaketa egiteko aukera ematen dit».



Javi Luke
Futbolaria

Dagoeneko Osasunako jokalaria da Javi Luke futbolaria, asteazkenean bertan akordio batera iritsi baitziren talde nafarra eta bizkaitarra. Luke aurrelaria, printzipioz, 1994eko 30ra arteko kontratuarekin etorriko da, baina Osasunak, Angel Bizkai gerenteak adierazi zuenez, erosteko aukera ere izanen du denboraldia amaitzen denean. Bilboko aurrelaria salgai zegoela adierazi zuen Jupp Heynckes Athleticeko entrenatzaileak, eta Valladolid taldea fin ari zen bere atzetik. Osasuna, Angelovek alde egin eta gero, norbait fitxatu beharrean zegoen, eta azkenean Luke ekarri dute. Diru kontuak oraindik zehaztu gabe badaude ere, hamar eta hamabost milioi pezeta inguruko traspasoa izango da.

AHAZTU GABE!

SAN SATURNINO eguna dela eta, heldu den astelehenean, azkeneko urte hauetan bezala, Erakunde Herriarren Batzordeak ekitaldi bereziak prestatu ditu, udalak ofizialki egingo duenaren alternatiba moduan. Goizeko 11.30etan Herri Kirolak izanen dira, eta Txantrea eta Donibane auzoetako taldeak elkarren kontra ariko dira bertan. Ondoren, kalejira, gaiteroak, txistulariak, dantzariak, antzerki taldeak, txaranga, zantzar eta bestelakoekin kalejira hasiko da Gaztelu Plazan. San Nicolas, San Francisco Plaza, Udaletxe Plaza, Mercaderes, Navarrerria, Caldereria eta San Agustin kaleak zeharkatu ondoren, Labritera iritsiko da. Eguneko ekitaldi nagusia herri bazkaria izanen da, Labrit pilotalekuan. Bazkaria 14.30etan hasiko da, eta ostean musika antolatu dute. Jende bazkaltzen ari den bitartean 'zoketa sorpresa' izango da, antolatzaileek adierazi zutenek. Bazkarira joan nahi dutenek 1.500 pezeta-tiketa erosi beharko dute. Sarrerak Basajaun (Arrotxapea), Txorimalo (Txantrea), Sorgintze (Arrosadia), Toki Eder (Donibane), Monton, Meson de la Navarrerria eta Katu (Alde Zaharra) tabernetan izango dira salgai.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

EGUZKI IRRATIAK eskaintzen duen programazioaren artean bi saio nabarmenduko ditugu gaurkoan, Osasuna taldea eta maitasunari buruzkoak hain zuzen. Lehendabizikoa astelehenean eta bigarrena asteazkenean, biak 21.00etan hasten dira. Elkarrizketak, komentarioak, lehiaketak, irratinobelak eta musika eskaintzen dute, besteak beste.



Aribe

Zuberoako Leader taldearekin bilera

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroa eta Zuberoako Leader taldeak bilduko dira gaur Aezkoako Ibarren Etxean, aurrerantzean egin nahi dituzten elkarlanak zein izango diren zehaztu eta jakiteko. Hau da bi talde hauek egingo duten bigarren bilera, urte honen hasieran Maulen bildu baitziren lehendabiziko ezagutza egiteko. Mahai gainean izango dira bi taldeen proiektuen azalpena, baina bereziki elkarlanerako egitasmoak, heldu den urtean erabaki behar den Leader-2 egitasmoari begira.

Leader Europako Batzordeak oso garatuak ez diren inguruak edo mendialdekoak laguntzeko aurrera eraman zuen proiektua da, baina heldu den urtean amaituko da eta beste egitasmoa ateratzeko asmoa dago, Leader-2 izenekoa. Horretarako baldintza ia ezinbestekoa da «nazio ezberdinetako» taldeen arteko egitasmoak aurkeztea, eta horri begira abiatu dira elkarlanean Nafarroako eta Zuberoako taldeak. Egitasmo honetan berriro sartzea oso garrantzitsua izango litzateke taldeendako, baina ez derrigorrezkoa, Javier Baztarrika Cederna-Garalur elkartekoak azaldu duenez. «Desberdindu egin behar dira taldeak eta egitasmoak. Cederna-Garalur taldea Leader-ekin batera jaio zen, baina dirulaguntza hori berriro lortzen ez badugu, aurrera jarraituko dugu, beste proiektutan eta beste dirulaguntza batzuekin».

Gaurko bilerara bi aldeetako ordezkariak azalduko dira. Zuberoatik Dascon jauna —bertako



Aezkoako Etxean izango da bilera.

ALBERTO BARANDIARAN

Leader taldeko eta Zuberoako sindikatuko burua— joatekoa zen, hango proiektuetan lanean ari diren agente birekin batera, eta Nafarroatik Cederna-Garalur taldeko buruak eta Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzuko ordezkariak izango dira. Halaber, Luzaide, Auritz eta Erroibarko alkateei eta Nafarroako Gobernuaren Kanpo Ekintzetarako bulegokoei ere gonbitea egin zaie.

Nafarroatik zenbait proiektu aurkeztu dira elkarlanerako, Europako Batzordearen Interreg egitasmoan aurkezteko. Aipatzeakoak dira bi herrialdeen artean

heldu den urtean egin nahi den mendialdeko lurraldeei buruzko mintegia, eta baita bi aldeetako garapen agenteendako hezkuntza ikastaroa ere. Horrekin batera, Zuberoa eta Nafarroako partaide sozio-ekonomiko guztiak bilduko lituzkeen argitalpena osatu nahi da, Baztarrikaren esanetan «elkarren ezagutza oraindik oso txikia delako».

Nafarroako Leader taldeak Errioxa eta Teruelgo (Espainia) hainbat taldeekin harremanetan dihardu, eta baraztetako produktuak banatu eta bultzatzeko, egitasmoa burutu nahi da luze gabe.

Iruña

Herri Dantza Ekitaldien Teknologia landuko du ikastaroan Ortzadarrek

IRUNEA

Herri Dantza Ekitaldien Teknologia gaia hartuz, Kultura Tradizionalari buruzko VI. Ikastaro Monografikoak antolatu ditu Ortzadar Iruñeko Euskal Folklore taldeak, bihurtik aurrera eta abenduaren 19ra bitarte. Bi orduko 20 klasetan banatuta, muntaia, ekoizpena eta ariketa praktikoak landuko dira, folklore arloan lanean dihardutenei oinarritzko ezagupenak eskaini asmoz. Halaber, folklorearen zabalpenerako pausu bat emateko nahiak bultzatu du taldea ikastaro hau antolatuzera, «ikuski-

zun eta emanaldietan beste leku anitzetan erabilitako eszena teknikak folklore taldeek ere beregana ditzaten».

Ikuskizunetan funtsezko diren hainbat teknika eta baliabide landuko dira ikastaroan, hiru ataletan banatuta: eszenografia eta dekoratuen eraikuntza, argiztapena, eta ekoizpena eta kudeaketa. Lehendabiziko atalean eszenak berez dituen baliabide guztiak jorratuko dira: eszenografia, ekoizpena, muntaia eta kolorea. Horrela, bertan eremu ezberdinen azterketa egingo da, eta eszenatoki bat egiteko behar diren teknika guztiak landu. Ha-

laber, horretan parte hartzen duten langileen eginbeharrak azalduko dira, eta koloreari buruzko teoriak landuko dira: forma ezberdinei buruzko funtzioak, nahasketak, efektuak, eta abar...

Argiztapen arloan ekipoa, eszenaren argiztapenak sortzen dituen arazoak, kolorea eta praktika landuko dira. Azkenean, ekoizpen eta kudeaketa izeneko sailaren barruan, lan bat taularen gainean behar bezala aurkezteko behar diren urrats guztien planifikazioa zehaztuko da. Ikastaroa amaitzeko ikuskizun bat ekoiztuko da bertan.



TUTERAko Buru-Osasun Zentroan drogazaleei metadona ematen hasi dira, lehendabiziko aldiz Nafarroan. Duela bi astebe-te eskas hasi zen esperientzia, eta Osasunbidean bada asmoa, dena ongi ateratzen baldin bada, bederen, Nafarroako beste zentroetara ere zabaltzeko. Garrantzi handiko egitasmoa, horrelakorik frankotan eskatu baitute drogazaleen inguruan lanean ari diren taldeek, baina orain arte, lurraldean gai honi buruz dagoen sentsibilitatea dela eta, ez da aurrera eramaterik izan. Arlo honetan lanean dabiltzan hamahiru talde nafarrek sinatutako txostenean, Nafarroako Drogaren Aurkako Egitasmoa berraztertzearen alde azaldu ziren, eta drogazaleei eman beharreko laguntzak igo beharra. Hasieran propaganda handirik gabe aurrera egiteko nahi agertu dute Buru-Osasun Zentroko arduradunek, baina aurrerantzean, zabaldu egingo da proiektua.

IRUÑA

ANTONIUTTI PARKEA

AZAROAK 26, 27 ETA 28

Ordutegia:

goizeko 10etatik arratsaldeko ordu 2etara eta arratsaldeko 4etatik iluntzeko 8etara

*Euskara,
iraganaren
geroa.*

Euskera,
un pasado con futuro.



Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Agoitz, Anisoain, Atarrabia, Barañain, Burlata, Gares, Lizarra, Ubarte, eta Zizur Nagusiko Udalek
ANTOLATUTAKO KANPAINA



ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Etxebizitza izan da Nafarroako gai eztabaidatuenetakoa, edo bai, bederen, UPN eta PSNren arteko iskanbilen sorburu jorie-takoa. Gabriel Urralbururen Gobernuaren garaian, sona handia izan zuten Federico Tajadura orduko Etxebizitza kontseilariaren eta Juan Cruz Alli lehendakariaren arteko polemikak, eta eztabaida gogorrenak horren inguruan izan ziren. Tajadura 'Nafarroako alkate' bihurtu zen orduan, babes ofizialeko etxebizitza bultzatzaile nagusia alegia, eta gaur egungo lehendakaria Zizur Nagusian eta Mendillorri zeuden asmo publikoen aurrean udalen interesen defendatzaile agertu zen.

Horrekin batera, Iruñeko Udalak ere hartu zuen parte polemikan, eta kontseilari sozialistak Arrotxapean egin nahi zuen egitasmoak krisi bizia sortu zuen UPNko udal taldean. Horren ondorioz Chorraut alkateak bere taldearen konfiantza galdu zuen, eta horrek ekarri zuen Alfredo Jaimereren igoera. Azken aste honetan errepikatu egin dira azalpenak eta eztabaidak, eta Federico Tajadurak Gobernuaren etxebizitza politika gogor kritikatu zuen Parlamentuan izandako batzordean. Bertan Nafarroako Gobernuaren etxebizitza politika «eskasa eta ahula» zela esan zuen sozialistak eta Iruñeko Udalarekin sinatutako hitzarmena «erabateko porrota» izan zela azaldu.

KOPURUAK Zenbakiak, baina, bestelako irudia ematen dute. Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Departamentuaren datuen arabera, etxebizitza kopuruak gora egin du azken urteotan, eta Gobernuak aurrikusitako 4.000 etxebizitza urteko kopurua bete-ko dela diote. 1985etik hona 30.000 etxebizitza inguru eraiki dira Nafarroan eta hasierako urteetan 2.000 inguru baziren ere, azken hiru urteotan bikoiztu egin da multzoa. Eztabaida, baina, babes ofizialeko etxebizitza arloan dago.

Izan ere, Tajaduraren 'borrokak' hortik jo zuen. Sozialistak agintera heldu zirenetik etengabeko erreibindikazioa izan zen babes ofizialeko etxebizitzak ateratzeko lur-sail publikoa eskuratzea. Zizur Nagusian izan ziren lehendabiziko ahaleginak, baina benetako eskuhartzea Mendillorri izango zen. Eguesibarko dermian, Iruñetik hiru kilometro eskasera, egingo zen inoiz Nafarroan izan den lur-sail publikoaren eskaintzarik handiena. Horrekin, Tajaduraren ustetan, hurrengo urterako beharrak beteko ziren, eta urte horietan nagusi zen espekulazioari nolabaiteko traba jarriko zitzaion. Mendillorriekin batera eskuhartze izan zen Sarrigurenen ere, eta Arrotxapean antzeko zerbitu egin nahi zuen Gobernuak. Baina topo egin zuen Juan Cruz Alli eta Alfredo Jaimerekin. Lehendabizikoa 'udalen eskumenak' babesten aritu zen, eta bigarrenak ez zituen begi onez ikusi Nafarroako Gobernuaren ahaleginak. Hain zuzen ere, Tajadura beldur azaldu zen horren inguruan sozialistek agintea galdu zutenetik. Eta gertatu, halaxe gertatu da. Etxebizitzak egin, egin dira, baina ez da lur-sail eskaintza handirik egin azken hiru urteotan. Eraiki da, baina aurrekoek egindako ahaleginari esker.



Mendillorri izan da azken urteotako proiekturik garrantzitsuenak.

JOXE LACALLE

Nafarroako etxebizitza arloan urte garrantzitsuak izan dira azken hauek. Inoiz baino gehiago eraiki da, bereziki Iruñerrian, baina betiko kexek hor diraute: garestiak eta askorendako eskuraezinak dira eraikuntza berriak. Bitartean, hutsik dauden etxeak gero eta gehiago dira, eta babes ofizialekoak urriak. Gobernuaren eta oposizioaren arteko eztabaida gogorrenetakoez hor dute sorburua.

Iskanbilen sorburua

1985ean eraiki ziren hamar etxebizitzatik zortzi ziren babes ofizialekoak, eta hortik aurrera etengabeko jaitsiera izan du kopuruak. 1989an % 22koa izan zen, eta gero gora egin badu ere, % 35ean gelditu da. Luis Antonio Aiesa Etxebizitza zuzendariaren ustetan, kopuru hori «nahikoa» ez bada ere, hasierakoak

«neurritz kanpokoak» zirela dio. «Gure ustetan, neurri egokiena % 50 izango litzateke, hau da, kopuru beretsua lortzea etxebizitza libre eta babes ofizialekoen artean, eta horren bila goaz. Aurtengo kopurua % 45ekoa izango da». 1988tik aurrera etxebizitzaren arloan izan zen espekulazioari leporatu dio Aiesak babes ofizialeko etxe kopuruaren etengabeko beheraldia, baina egoera orekatzen ari dela dio. «Ordura arte etxebizitzaren erosleek etxean bizi behar zuten, baina hortik aurrera inbertsioa egiteko oso arlo aproposa egin zen etxebizitza. Inbertsioak egin ziren, eta jende asko aberastu ere bai etxeak erosten eta saltzen.

Etxebizitzak egin dira, baina ez da lur-sail eskaintzarik izan. Hau da, eraiki da, baina aurrekoen ahaleginei esker.

BABES OFIZIALEKOAK BEHERA Bestalde, etxebizitzaren gorakadan aldatuta esanguratsua izan da.

Ondorioz, ohizko erosleak baztertuta gelditu ziren nolabait. Egun, prezioak onera etortzen ari dira berriro ere, eta babes ofizialeko etxeak beren tokia berreskuratzen ari dira», azaldu du Luis Antonio Aiesak.

Oraindik ere, ordea, etxeak garestitzen ari dira Nafarroan inguruko lurraldeekin alderatuta, eta aurtengo igoera % 7,7koa izan da. Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeetan, kasu, % 5,8 igo da etxebizitza azken urteotan. Bada, hala ere, etxeak erosteko garai ona den ustea. Diruaren prezioa franko jaitsi da azken urteotan, eta oraindik kredituetan eragina izan ez badu ere, luze gabe igerriko dela diote Administrazioan.

IRUÑERRIA EREMU AUKERATUA Bitartean, Nafarroako etxebizitza arloko ahaleginak Iruñerrian kokatzen dira.


Lurraldeko biztanleen % 43 bizi badira ere, eraikitakoaren % 55 inguru bertan da, eta Iruñeko Alde Zaharra eta lehen zabalgunea, ondorioz, etengabe husten ari dira. Aiesaren ustetan, erosotasuna eta toki berriek eskaintzen duten abantaila da horren arrazoia. Hori konpontzeko etxebizitzaren berri- tze lanetarako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak aipagai ditu zuzendariak.

Babes ofizialeko etxebizitzak eta Mendillorri gora-behera, ezin uka etxebizitza arazorik larriena dela oraindik askorendako. Tajadurak esan zuen, kontseilaria zelarik, arazoak konponketa zuela pentsatzea utopia zela eta hori bera pentsatuko du etxebizitza erosteko inolako aukerarik ez duenak. Askotxok, beraz, eta gehienak gazteak. Mendillorri gaiteendako eskaintza bereziak atera ziren, baina aukera, oraindik ere, oso urrun suertatzen zaio askori. Horren inguruan mintzatu ziren asteartean Donostian Etxebizitza kontseilariak, eta alokairuan ateratzen diren etxeak bultzatu beharra azpimarratu zen. Izan ere, Euskal Herrian eta Espainia osoan oso txikia baita etxebizitza alokatuen kopurua, praktika hori Europa osoan arras zabalduta badago ere. Luis Antonio Aiesaren ustetan, ordea, zaila da horrelakorik bultzatzea, «kontuan hartuz jabetzarekiko dugun atxikimendua». «Nafarroan alokatutako etxebizitzaren promoziorako dirulaguntza handienak ditugu», dio zuzendariak, «baina ez dira merkatura ateratzen. Etxegileak oso barneratuta dauka epe laburrean lortu behar dituela etekinak, eta horretara jotzen du: egin eta saldu. Alokairuak epe luzeko etekinak sortzen ditu, baina hori ez da enpresa askoren aurrikuspenen barruan sartzen». Gainera, horretarako oso ohituta ez gaudela dio etxebizitza zuzendariak, eta Europako joera ere aldatzen ari omen da jabetzaren alde. «Oso jende gutxi du gustuko alokatutako etxe batean bizitzea».

Etxebizitzaren bilakaera Nafarroan



mintzoak



Dirulaguntzen atzetik

IRUÑEA

I.Z. eta J.M. pisu bila hasi ziren 1991n, erosteko asmotan. Etxebizitza berriak beraiantzat garestiegiak zirelakoan, erabiliak begiratzen zituzten egunkarieta-

tza bai etxebizitza berriak bai erabilitakoak erosteko zen: Gobernuak prezio osoaren ehuneko bat ordaintzen zuen, eroslearen diru sarreraren arabera, eta, hau ere norberaren errentaren arabera, kreditu biguinak eskaintzen zituen.

zeuden luxuzko etxebizitzentzat pentsatuak. Horregatik, eskaera egin ahal izateko metro karratuak ezin zuen prezio jakin bat gainditu: 124.000 pezeta orokorrean eta 135.000 pezeta Iruñerriaren kasuan.



Iruñeko Donibane eta Ermitagaina dira hazten ari diren auzoak.

ko iragarkietan. Haiek ere ez ziren merkeak eta, horretaz gain, pisua erostea zailtzen zuen beste faktore bat ere bazegoen orduan: kredituak, dirua oso garesti baitzegoen (interes tipoa, batez beste, % 15-16koa zen).

Lehenengo ahaleginak etsitzeko modukoak izan ziren: Iruñean apenas aurkitzen zuten eskaintzarik 11 milioi pezetatik behera eta, biak lanean ari ziren arren, kredituak hain garesti zeudenez bizitza osoa beharko zuten interesak ordaintzeko.

Egoera horretan zeuden Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen berri izan zuten. Eskaint-

I.Z.k eta J.M.k ez zuten bi aldiz pentsatu: huraxe zen beraien aukera. Bien artean urtean 4 milioi pezeta baino gutxiago irabazten zuten, Gobernuak beraiek aukeratutako pisuaren prezioaren % 4 ordaintzen zien. Hau da, ordaindu beharreko 9 milioietatik 360.000 pezeta Gobernutik jaso zituzten. Horretaz gain, gainontzekoa ordaintzeko kreditua % 7,5eko interesean eskaini zieten, garai hartan sinestezina. Kreditua 15 urtetara zen, lehenengo hamarretan aipatutako interesean eta azkeneko bost urtetan, berriz, % 9,5ean.

Jakina, dirulaguntza hauek ez

Bi urte geroago, gure bikotea zorte handia izan zuelakoan dago, dirulaguntzarik gabe ez baitzegoen hain ur handietan sartzeko egoeran. Haatik, eskaintza ez zen betiko. Iragan urriaren 30ean bukatu zen dirulaguntza hauek eskatzeko epea eta ez dirudi datorren urtean antzeko ezer izango denik. Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Saileko iturrien arabera, eskaintzak oso erantzun ona izan du, gehienbat gazte jendearen aldetik, eta azken egunera arte gainezka eduki dute bulegoa. Baina, esan bezala, eta Foru Parlamentuak iritzi aldatzen ez badu behintzat, 1994ean ez da la-

Baztandar ospetsuak

● Gure lurraldean bertze lekuetan bezala Yaun yakin-tsuak sortu dira, gure sorlekuari ohore handia eman diotenak, hoi artean Kruz Goienetxe Yauna, Elbeten sortua 'Errotaxain' deitzen den etxean 1867 garren urtean. 1891 garrenean apez egin zen eta lehenbiziko urteak Luzaiden iraganik gero Amaiurko Erretore izendatu zuten. Amaiurren lan onuragarria egin zuen eta gauza aunitzen artean Latin Eskola ereki zuen bera Irakasle ta zuzendari zelarik. Baita ere olerkiak eta Ipuin bilduma interesgarria euskaraz moldatuak. Kruz Goienetxe Yaunak bere Ipuin bilduman agertzen duen lan interesgarrietan, bat badugu merexi lukela aipatzea. Baztango kondairari lotua dagona eta mendez mende iraun duena, Urtsuko ermitan denbora batez gertatutakoak aipatzen duena. Urtsua denbora batez Baztango Yauregi haundietakoa zen, 'Cabo de Armeria' deitzen zen Yauregi ospetsua. Nafarroako Erregearen ordezkariak ziren Urtsuko Yaunak.

Urtsuko ermitako aipamenak, ziur eztagiku zein mendetan gertatu ziren, Parrokiatan ez baitira ez ezkizketa, ez heriotza eta ez ehorzketaren paper edo agiririk agertzen. Baina zerbait badela ez dago zalantzarik zeren ahoz aho eta mendez mende etorri den Kontakizuna eta batez ere Urtsuko bertsoak adierazten dutena, zerbait gertatu zela erakusten dute. Bertso famatu hoiek gure aintzineko amatxi zaharrek kantatzen zuten. Orain galduek daude bai baina bertso hoiek aspaldi huntan idatzirik baitaude ez dira aisa galduko eta gainera oraiko kantari euskaldunek bertso hoiek kantatzen dituzte kitarra soñuaz lagunduz.

Kruz Goienetxe Yaunak idatzi zuen 'Urtsuko Ermitan' izenburuakin agertzen dena erakuts dezagun:

«Nafarroan, Baztango ibarrean, Arizkongo lurrean Urtsu edo Urtsua deritzaion Yauregi zagar bat zen. Orain ere bere arresiak zutik daude. Izen aundikoa zen aldi batez Nafarroan. Ango Yaun bat Nafarroako Erregeren inguruko izan zen. Bertze bat Frantziako emazteki batekin ezkondu zen.

Anai apeza zuen emazteki onek eta Nafarroara andiki batekin ezkontzera zertorrela ta agur egitera agertu zitzaion.

Apezak, arrebak aur egiteko zela igarrita, gurasoen Yauregian iduki nai zuen. Arrebak anai apezari isileraztearren, ezpata bat agindu zion. Ezkontzerakoan emaztegiak eunka ekarri zituen zikiroak, urrezko ustaiez orniturik.

Urtsura iritsi zenean, etxe-koandre zagarra oitura zenez, atarira yautsi zen ta erraingaia besarkatu zuen. Ezkondu ziren ta bereala zagutu zuen senarrak emaztea nola zegoen eta etxeko mutil bati erran zion zaldia ermitaren ondoan gerta zezala, ferrak aitzinekoa gibelera zituela.

Lotarako zeudela, senarrak emazteari erran zion:

—Eztun ikusi bear etxeko ermita, zerbait errezatzeko ere?

—Nai baduk, goazin ermitara.

Yautsi ziren ta xixtako batez senarrak emaztea il zuen eta bereala zaldi-gaineraturik lauringoan Frantzira iges egin zuen».

Kruz Goienetxe Yaunak holaxe idatzi zuen Urtsuko ermitako gertakizunak.



Mariano Izeta Erlojularia


guntza gehiago izango, jende asko eskaera egin nahian geldituz den arren.

BERRITZEKO URTE AMAIERA ARTE Etxebizitzak berritze dirulaguntzak eskatzeko epea, berriz, zabalik dago abenduaren 31 arte, beti ere baldintza batzuk betez gero. Lehenik eta behin, etxebizitzak hamar urte baino gehiago izan behar ditu eta berritu edo hobetu beharreko elementuak komunak izan behar dute (aurrealdea, eskailerak, hormak eta abar). Gainera, berritze lanen aurrekontuak 500.000 pezetakoa izan behar du, gutxienez, etxebizitzako. Baldintza hauek betez gero, Nafarroako Gobernuak gastuen

portzentaia jakin bat —gehienez, % 14— ordaintzen du, norberaren diru sarreraren arabera. Modu berean, kreditu biguinak eskaintzen ditu, % 7ko interesean errenta apaleneztat eta % 12,5ean errenta handienentzat. Aipatzekoa da, halaber, etxebizitzak 50 urte baino gehiago baditu dirulaguntzak bikoitzak direla (beraz, errenta apalenen kasuan, Gobernuak lanen % 28 hartzen ditu bere gain).

Etxebizitza Sailaren laguntzez gain, Iruñeko Udalak eskaintza berezia du alde zaharreko etxebizitzentzat. Hauek jaso ahal izateko, etxebizitzak 50 urte baino gehiago eduki behar ditu derrigorrez. Eskaerak Eslava kaleko bulegoan egin daitezke.

Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren seigarren jardunaldiko partida, 1993ko azaroaren 20an jokatu.

Ander Gamez, 2.135 ELOkoa (Oberena 'A')-J.M. Muruzabal, 2.355 ELOkoa (Casco Antiguo 'A').

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc6,b-c6; 6.Ad3,-d6; 7.0-0,e5; 8.c4,Ae7; 9.Zc3,h5. Beltzek ez dute beldurrik eraso egiteko, nahiz eta erregea agerian utzi ahal izan. 10.b4. Txuriek beste aldetik peoiak aurreratuz erantzuten dute. 10...h4; 11.a4,-Ag4; 12.Ae2,Ae6; 13.Ae3,g6; 14.a5,Zh5; 15.b5,Zf4; 16.c6,h3; 17.g3,Ze2 xa; 18.De2,De8; 19.-Zd5,Dc6; 20.fG-d1,Ad8; 21.dG-c1,f5.

Berriz erasoan. Erregea ongi babesturik dago, bestela pentsa litekeen arren. 22.Df3,Gc8. Ikus koadroa. Beltzek ez zuten gazteluaren peoia eman behar. 23.-Aa7,Ad5; 24.e-d5,Da6; 25.Ae3,-Af6. 'Gc4' jokaldiak gazteluaren trukea ekarriko luke, eta gero peoiaren barneratze azkarra. Beraz, peoi bateko abantailaz jokatuko dute txuriek aurrerantzean.

26.Ga4,e4; 27.Dd1,g5; 28.-Ad4,Ad4; 29.Dd4,0-0; 30.De3,-g4; 31.Gb1,Gb8; 32.Gb6,Ef7; 33.Ef1,Gb6; 34.Db6,Db6; 35.b6. Egoera oso txarra da beltzentzat. Teknika kontua da bukaera hau. 35...Gb8; 36.Gb4,Gb7; 37.Ee2,-Ee8; 38.Ee3,Ed8; 39.Gb5,Gb8; 40.Ef4,Ec8; 41.b7 xa. Beltzek erregea makurtu zuten. Gaiarki pentsatutako jokaldi hark eraso eta partida zapuztu zituen.

Etxe lagatua

BIRJINIA ZABALETA

Baso txiki batetan etxe zahar bat zegoen. Oso zaharra zen eta ia-ia eroria zegoen. Lehen, familia bat bizi zen baina haiek etxe hori utzi zuten eta beste herri batetako etxe batetara joan ziren bizitzera.

Beraz, etxe hori lagatua zegoen. Behin etxe hori ikustera joan nintzen. Baratza erako batzuk zeuden etxearen ondoan. Etxearen beheko atea egurrezkoa zen eta ia-ia erorrian aurkitzen zen. Etxearen atzeko atea, ikuiluarena zen eta oso handia zen.

Ikuilua oso handia zen ere eta belar zaharrez beteta zegoen. Oso usain txarra zegoen. Ikuiluaren paretetan armiarma-sareak ikus zitezkeen. Ikuiluaren zoluak soinu ikaragarriak ateratzen zituen gainetik pasa ezker. Dena oso ilun zegoen eta ikuiluan zegoen lehio txiki bakarrak kristala apurturik zuten. Eskailera batzuk ikusten ziren gora begiratzén bazuenen. Eskailera horietatik gora igotzean korredore luze bat zegoen.

Lehendabiziko gelak komuna bat zirudien. Bertan, bainontzi zahar bat ikusten zen. Hau dena

zulaturik eta armiarmaz beteta zegoen. Komuneko kazola erditik puskatuta zegoen eta zintzilik zegoen ispiluari puska bat falta zitzaion.

Bigarren gela oso handia zen, gurasoen gela zirudien. Bapatean nigar hots batzuk entzun nituen eta ondoko gelatik haldu zela iruditu zitzaidan. Lasterka joan nintzen ea zer zen ikustera. Hor non ikusten dudana zortzi bat urteko mutil koxkor bat. Berak ni ikustean, asko ikaratu zen eta ordutan ni berarengana hurbildu nintzaion. Galdera mordo bat egin nion, ea nor zen, zer ari zen egiten leku horretan, zergatik zegoen hor, nongoa zen... Hasieran ez zidan hitzik ere erantzun baina beldurra kendu zitzaionean dena kontatu zidan.

Izebarekin bizi zela baina bera oso gogorra zenez berarengandik aldegitara pentsatu zuen. Ikusi zuen lehenengo etxea hori zen eta kanpoan euria zegoenez, hor sartzea pentsatu zuen. Bera Itsaso herrikoa zela ere esan zidan. Hori dena entzun ondoren eta ni bakarrik bizi nintzenez, ea nerekin bizi nahi zuen galdetu nion. Bera ixilik gelditu zen hasieran. baina

ongi pentsatu ondoren, nerekin bizi nahi zuela erantzun zidan. eragozpen handia ez bazen behintzat. Bere izena Aitor zen eta lehen esan bezala, zortzi urte zituen.

Etxe lagatu horretatik atera ginenean, nere autoan sartu eta nere etxerantz abiatu ginen. Bapatean izugarrizko soinu bat entzun genuen. Autoa gelditu eta atzeraka begiratzean etxea goitik behera eroria zela ikusi genuen. Batak besteari begiratu genion, irrifartxo bat botaz, eta etxerako bidean jarri ginen.

Etxerako bidean, berak kontatu zidan bere bizitzako istoriotxo: «Orain dela zazpi urte, ni nire gurasoekin bizi nintzen etxe eder batean. Oso pozik bizi ginen hirurak, zorigaitz bat gertatu arte. Nire gurasoak autoan zihoazenean istripu bat eduki zuten. Nire aita hil egin zen eta nire ama berriz, oso larri zaurituta klinikara eraman zuten. Baina alferrikakoa izan zen, hortik bi egunetara hil bait zen.

Hau izan da nire bizitzako istoriotxo», esan zidan berak. Hortik aurrera bientzat bizitza berri bat hasi zen.



Bortuak

Pirinioak dira, dudarik gabe, Nafarroako mendirik larrienak. Pirinio forma Axularrek erabili zuen 'Mendi Pirinioetan' baina, bistan da, ez dela oso euskalduna. Etimologiari dagokionez Pirene-rekin, Narbonako erregearen alabaren izenarekin, lotzen da. Neskatoa, Herkulesek liluratuta, suge batez erditu zen. Neskato gaixoak, bere sabeleko fruituak ikaraturik, mendira jo zuen (Piriniotara) eta hor basapiztiak jan zuten. Herkulesek berak aurkitu eta chortzi zuen gorpua. Handik heldu zaie izena.

Manuel Escalante aragonesaren ustez ez da hori azalpenik egokiena. Horren ustez euskarak emanen digu erantzuna. Laburbilduz hona hemen etimologia dirdiratsua: *Piri* hitzak gaurko euskaraz esanahi onomatopeikoa omen du: «sucesion no interrumpida y agitada de cosas»; eta bestetik *Anayos*, fonetikako mirakuluei esker, *Enneos* bilakatua, beraz *Piri Enneos*. Hots 'Behin ere bukatzen ez den anaien (mendi biziak Dos Hermanas bezala) segida edo katea'. Aragonesak ez du maite izenaren jatorri grekoa eta sineskaitza egiten zaio mendi garrantzitsu horiek bertako izenik ez izatea. Escalante jaunak, hala ere, oso gauza inportantea ahaztu du. Aditu ote ditu Pirinioetako artzainei 'Pirinioetara noa' bezalako esaldiak? Seguru ezetz. *Pirinio* idatziz transmititu den izena da. Historialari klasikoek erabilitako izena da, eta liburu horietatik gaur arte letrei esker iraun du bizirik. Kartografian betidanik nagusi izan da izena. Idatziak gure gizarteko azken txokoa harrapatu duen garai honetan denok baliatzen gara izen honetaz. Nork ez du *El Piri* ezagutzen?

Baina, zein da, bada, indigenen izena? *Ahuñamendi*? Ez, alajaina. *Ahuñamendi* aukeratu izan zen Pirinio atzerriarra ordezkatzeko. 1898ko urtarilaren 20an Txomin Agirrek idatzi eta *Euskaltzale*-n argitaratutako *Auñamendiko Lorea* liburuan ohar txo hau ikusten da 'Auñamendi Montes Pirineos erdaraz'. Baina *Ahuñamendi* gure Ani da, besterik ez. Toponimo garbi honen aldeko borrokaren arrastoak baditugu oraindik ere gure artean, eta jatorrizko Anitik franko urruti gainera. Ardo oneko Garraldako Auñak eta Otsasiko Auñamendi tabernak, esate baterako. Gainera *Nafarroa 2000* izeneko zonifikazioan, Gobernuak aprobatauta, *Auñamendi* izeneko eskualdea Aezkoak eta Artzibarrak osatzen dute. Eta hemen Auñamendi Pirinioa da. Kurioso da, hala ere *Pirinioak* baztertu nahi izan zen garai horretan bazutela izen herritarraren berri: Bortuak.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Iaz hil zitzaidan senarra

Iaz hil zitzaidan senarra, aspaldi egin beharra. Zahartu zen, konkortu zen, itsutu zen, maingutu zen. Txartu zen eta hil bedi. Ez zuen balio lau zorri.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera


1. Azkarrak
2. Erro
3. Ergel
4. Herri nafarra
5. Irudia



1. Herri nafarra
2. Ohoin
3. Eliza txikia
4. Herri nafarra
5. Tenorea



1. Etxeko gela
2. Herri nafarra
3. Iluna
4. Lakartu
5. Bihia, alea



Bizi Bizian

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Arturo Kanpion euskaltegiaren 20. urteurrena medio, IKAk kontzertu eta ekitaldi anitz antolatu zituen. Ekitaldi horiek izan ziren, Asis Arbide diskoaren kudeaketan buru-belarri aritu den IKako irakaslearen arabera, diskoa grabatzeko ideia sorkorburua. «IKaren izena ez da gehiegi zabaldu, ez baitugu kezka handiegirik izan horretarako, eta zerbait egitea polita litzatekeela iruditu zitzaigun».

Promozio nahiaz gain, diskoa beste bi arrazoi nagusiren ondorioa izan dela esan zuen. «Batetik gure ikasle eta lagunen artean rock munduan ibiltzen denik badela, eta bestetik IKAn betidanik garrantzia eman diegula kultur jarduerara eta euskara erakargarri egiten duten ekimen guztiei».

Hasieran, Patagonia eta Balerdi-Balerdirekin disko txikia grabatzea pentsatu zuten. Asmo hura ordea, mardultze bidean sartu zen, eta azkenik disko handi bilakatu zen hasierako disko txiki hura, Patagonia, Balerdi-Balardi eta Txarrenaren —El Drogasen behin-behineko taldearen— laguntzari esker. Bestalde, gainontzeko taldeek musutrik egindako lanek diskoari benetako forma eta pisua eman zioten.

Diskoaren grabazioa joan den irailean egin zen. Talde guztiak Arion estudioan elkartzea nekeza izan zen oso. «Estudioa lau egunez alokatu genuen, eta talde guztiak egun horretan jotzeko prest egotea kostata lortu genuen». Aipatu zailtasun horiek medio Patagoniak ez zuen estudioan grabatzeko aukerarik izan. «Gainontzeko talde guztiek orain artean argitaratu gabeko kantak sartu zituzten diskoan, baina Patagoniakoek, tamalez, ez zuten aukera hori izan. Hasieratik diskoa aurrera ateratzen lagundu ziguten, baina grabazioa egin genuenean oporretan zeuden, eta aspaldiko kanta sartu behar izan zuten».

Euskara ez da diskoak biltzen dituen kanten ardatz tematikoa, kontrakoa pentsa daitekeen arren. «Taldea batzuek hasieran horixe bera galdetzen ziguten, ea euskarari buruzko kantak izan behar zuten. Horrelakorik ez genuen nahi». Hortik sortu zen 'Ikaratu beldurrik gabe' diskoaren izenburua. «'Euskara aurrera' edo horrelakorik ez genuen nahi, hori ez zen gure asmoa. Guk talde batzuekin disko bat egin nahi genuen, eta kitto. Horri lelo bat eman nahi izan genion, eta hortik sortu zen 'ika-ratu' hitz jokoarena». Lelo horretan oinarriturik, Nines eta Asisko Urmenetak egin dute diskoaren azala, eta diskoarekin batera datorren orrian, kanten hitzak ezezik, Arturo Kanpion euskaltegian musika taldeei eginiko zenbait argazki bitxi ere badira ikusgai.

Ahalegin horien guztien azken emaitza zinez ikaratzekoa gertatu da, «eta horrelako itxura ikusita, hiru formatuak plazaratzea



El Drogas eta Txarrenako bere taldekideak euskarazko klase gogorrean.

Zinez ikaratzekoa da 'Ikaratu beldurrik gabe' tituluarekin Ikas eta Ari (IKA) helduen euskalduntzerako erakundeak aurki salgai jarriko duen diskoa. Odol za-

har eta berria lapiko bakarrean sartu dute. Txarrena, Futs Indar, Balerdi-Balardi, Zarama, Patagonia, Pottoka eta Lin Ton Taun, edonoren rock gosea ase dezakeen anabasa.


IKaratzekoa

erabaki da, diskoa, kaseta eta disko konpaktoa». Formatu bakoitzean mila ale jarriko dira salgai. Hasiera batean, helburu nagusia promozioa bazen ere, proiektuaren mardultzearen ondorioz bestelako itxaropenak ere

sortu dira. «Hasierako kontuan gure helburua parra egiteko adina ateratzea zen. Taldeek ezetz esaten ziguten, IKarentzat dirua lortu behar zela. Orain, egia esateko, diskoaren azken itxura ikusita sosik ateratzeko asmoa ere

badugu». Balizko sosa horiek Matxinbeltzenea IKaren barne-tegi-aterbeak sortutako diru zorra estaltzeko erabiliko litzukete.

Diskoaren aurkezpena egunotan egingen dute Iruñean, eta heldu den astean beste aurkezpen bat



Pottoka, argazkiaren arabera, ez da alfabetatzearen aldekoa.



Kontrakoa pentsa daitekeen arren, euskara ez da diskoak biltzen dituen kanten ardatz tematikoa.

eginen dute Durangoko azokan. Beraz, aurki izanen da rock anabasa erakargarri hau dendetan erosteko aukera. Nahastea zuzenean dastatu nahi duzuenentzat aukera bakarra eta paregabea izanen da heldu den abenduaren 4-ean, Elorrioko gaztetxean. «Taldea guztiak elkartzea ezinezkoa izan da, baina gehienak bertan izanen dira, eta hori ez da gutxi». Aipatu beharra dago hau ez dela IKAk egunotan plazaratuko duen argitalpen bakarra. Durangoko azokan, diskoarekin batera, Asisko Urmenetak eginiko komiki liburua aurkeztuko baitute.

Anabasa

J.K.L. / IRUNEA

■ Ikaratu beldurrik gabe' diskoak euskal rock munduan geratzen diren azken dinosauroen doinuak aditzeko parada ematen du. Odol zahar eta berriaz osaturiko anabasa, diskoak zenbait talde hasi berriren kantak entzungai jartzen ditu dinosauro doinu horien alboan. El Drogas-en betiko rock & rollak ematen dio hasiera Lparen lehen aldeari. Odol zaharra behingoz euskaldunduta; izan ere, El Drogas-ek estreinako euskaraz abestutako kanta bat grabatu du, Txarrenarekin batera eta 'Lasai-lasai' izenekoa, txalaparta eta guzti.

El Drogas bezain kimaluzeduna, jada single bat grabatu duela eta lehen Lpa prestatzen ari delarik, Patagoniak Iruñeko euskal heavyaren berri ematen du bigarren kantan. Iruñeko heavyak Eibarkoaren inolako inbidiarik eduki behar ez duela argi eta garbi erakusten dute 'Zapalduen amorrua' kantan. Haatik, heavya ez da Iruñean egingen den

musika bakarra. Horren lekuko diskoaren hirugarren kanta, Balerdi-Balerdirena alegia. Toño Murok eta bere taldekideen rock-folka entzungai da 'Bapatean' abestian. Euskal rockaren aitzindaria izan zen talde batek ematen dio amaiera lehen aldeari, Zarama taldeak hain zuzen. Roberto Mošoren ahots berezia entzun dezakegu 'Rock'n roll story' abestian.

Bigarren aldeak hasiera malenkoniatsua dauka; izan ere, Futs Indar ezizenaren atzean ezkutaturik, Andoni Delirium Tremens desagertutako taldearen abeslari ohiaren 'Ez esan bai' kantak ematen dio hasiera. Hurrengo kanta, Fermin Muguruzaren azken aurkikuntza zestoarraren eskutik ailegatzeko da. Lin Ton Taun talde hasi berri bezain kementsuak haren rock, rap eta trikitiaz baliatuz 'Mendian gora rap' jotzen baitu. Pottoka Amaiurko artzainak 'I love you Kuba' kanta definigaitzaz ematen dio amaiera IKAk karrikatutako disko bikain honi.

Manolo Arozena

Bertsolaria

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren final-aurrekoetara pasatu da Goizuetako bertsolaria, nafar bakarra, hain zuzen ere. Bere ustetan, nafarren

txapelketarik onena izan da aurten-go, eta aurrerantzean, luze gabe, nafarrak finalean izango direla dio, baikor: «Horrela, gu, zaharrok, ez dugu joan behar izango».

«Biktima bezala ezin da altxatu»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Bertso eskolarik gabe bizi ahal zuenik ez zekiela esan zuen behin Manolo Arozenak, eta antzematen zaio hizkeran. Nafarrak aztertzeke eskatu eta Estitxu eta Amaiarekin hasi, finalera pasatuko ote den galdetu eta atzean bertso eskolako guztiak dituela azaldu, noizko nafar bat finalean itaundu eta bertso eskolakoak fuerte datozela erantzun. Bortzietako bertsolarien osaba Manolo. Nafarrek inoiz burutu duten txapelketarik onena izan da hau, bere ustetan, baina Iparraldekoie ere laguntza eman behar zaiela dio. Finalari begira, baikor da, borrokarako prest. «Biktima bezala ezin da taula gainera altxatu, eta jende pila izango dut atzetik animatzen».

EGUNKARIA.— Zeu zer moduz aritu zara?

AROZENA.— Gernikan egin nuen saioan kartzelako gaian ez nuen lan gehiegi egin, eta banuen nahiko duda ni sartuko ez ote nintzen ere. Baina sartzea tokatu da, bertsolari pila ere ibili delako batean ez bada bestean huts egingen, eta hor nago, gustura. Nafar bertsolarien saldoen goian egoteko esperantza nuen.

EGUNKARIA.— Txapelketa nagusia antolatzen den bakoitzean beti sortzen dira eztabaidak: hainbesteko garrantzia ematea ona den, muntai handia ote den... Zeu zer moduz aritzen zara txapelketan?

AROZENA.— Txapelketaren leloa argi dago: ez zaie interesatzen puntako bertsolariei. Hori zer galduta dute: bat ateratzen da txapelkun eta besteak galtzaileak. Hala ere, nik uste dut bertsolaritzari oro har, txapelketak on handia egiten diola, bestela bertsolari askok ez zuten jende kopuru dezente baten aurrean kantatzeko


aukerarik ere izanen, eta bertsolari gehienek txapelketari zor bat badiogu, nahiz eta gero bere aurka ez dakit zer esan.

EGUNKARIA.— Iparraldeko bertsolariak ongi ezagutzen dituzu. Ez al dute gehiegi galtzen parte hartzean?

AROZENA.— Bai, ikusten da txapelketa jende gaztearentzako dela. Gertatzen dena da Nafarroan, zorionez, gazteak baditugula, eta pentsatzen dut hemendik aurrera Euskal Herriko Txapelketara ez dudala joan beharrik ere izanen, ordezkari guztiak izango ditudalako. Eta Iparraldean, zoritxarrez, hori falta da. Gazteak falta direlako zaharrak joan gabe gelditzea ez litzateke ona izanen. Kontuan izan behar da Xalbadorrek kriston meritua duela aurkeztea bakarrik. Urte guztietan bi edo hiru saio bakarrik egiten baldin baditu, eta gero saio nagusi honetara joatea umorez, kantatzera... Gainera, ez zuen gelditu zen lekuan gelditu behar. Bera gai da egin zuen baino nahiko lan gehiago egiteko. Baina txapelketa egun bateko lana da, eta azken postuan gelditzeak ez dio inori pozik ematen. Eta hala ere, askoz ere txarragoa izango zen ez zuela joan behar esango bazuen. Iparraldean gazte batzuk nonbaitetik sortzen diren arte, Xalbadorri egin beharko zaio animatu ahal den guztia, ez etxean gelditzeko. Hori izango litzateke txarrena, Iparraldeko bertsolaritzaren heriotza gerta liteke hori.

EGUNKARIA.— Minduta edo etsita dagoela uste duzu?

AROZENA.— Elkarrekin egon ginen Gernikan, eta etxean bazkaldu genuen. Pozeg egoteko ez du motiborik. Saioa ez zitzaion oso borobildua atera eta minduta ez dut uste egongo denik baina pentsatzen egongo da, ez da po-



EDURNE KOCH

zez egongo. Eta erabakiak hartu baino lehenago nik uste dut animatu egin behar zaiola gizon horri.

EGUNKARIA.— Gazteena ere aipatu duzu, eta aurten lau sartu dira —Lopategi, Elortza, Sarasua, Iturriaga—. Hor badago erreleboa, ezta?

AROZENA.— Bai, duela zortzi urte izan ziren lehendabizikoak, eta orain beste multzo bat dator. Zoritxarrez nafarrik ez dugu hor, baina izango dugu, dudarik gabe. Bertsotan behetikotik egin behar

da lana eta nik uste dut bide zuzenean goazela. Aurten lehendabiziko aldiz 18 urteko bi emakume aurkeztu ditugu, gazteenak gainera, eta etorkizunari begira pozik egotekoa da. Lasaitasuna ematen dizu aurrerantzean beste jendea egongo dela ikustearekin.

EGUNKARIA.— Hor badira hiru bertsolari handiak —Amuriza, Lopategi eta Sarasua— txapelketari ezetza eman diotenak. Nola ikusten duzu haien jarrera?

AROZENA.— Jarrerak desberdinak dira. Lopategik 60 urte ditu

Xalbadorri animatu egin behar zaio, etxean ez gelditzeko. Iparraldeko bertsolaritzaren heriotza gerta liteke hori».

eta bizkarrean txapelketa pilo bat. Esan liteke plazetan irabaztea plazetan galtzea lojkoa dela, baina ulertu behar da berak eraman duen egurra azken urteetan. Amurizak ez du egokiegi ikusten bertsolaritzaren gaurko trenan, eta badu bere lojika horrek ere. Sarasuak, berriz, Gipuzkoakoan egin zuena eginda, atera baldin bazen, uste dut nik ez zuela ongi egingo. Gainera, garbi zegoen hori gure inguruan eta normalizat hartu dugu bere erabakia.

EGUNKARIA.— Zer espero duzu final-aurre hauetatik? Zaila dago finalean sartzea...

AROZENA.— Bai, zaila dago, baina final erditara doan edonork pentsatu behar du finalera pasatzea. Biktima bezala taula gainera ezin da altxatu, eta nik sinistu behar dut finalera sartzen ahal naizela. Beste gauza bat da sartzen naizen edo ez, baina sinistu behar dut. Gainera bertso eskolakoak eta etxeok atzean dauzkate. Bost bertsolari puntako daude hor, eta beste hiru postuetan edonork sartzen ahal da.

EGUNKARIA.— Noizko nafar bat finalean txapelaren lehian?

AROZENA.— Oinarriak jartzen ari gara. Ez dut eperik jarriko, baina gazteak bertsotan aritzen baldin badira, edozein urtetan izan ahal ditugu bertsolariak finaleran. Horri begira egin behar da lana.

HOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

